

4 Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-titulua

Julen Arexolaleiba

HUHEZIKO irakaslea eta EKTren koordinatzailea

julen_arexolaleiba@huhezi.edu

Sarrera-data: 2012-05-28 | Onartze-data: 2012-06-20

Laburpena. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa izeneko aditu-titulua ez da eskaintza akademiko soila, euskal kultura biziberritzeko tresna baizik. Horregatik bere ekarpena azaltzeak eta baloratzeak badu interesik. Balio dezake hausnartzeko ez ezik, hizkuntza minorizatua duten bestelako komunitateetan eredu gisa ere. Ildo beretik, aditu-tituluaren muinean dagoen Sorguneak ikerketa-taldeak bere premisak argitaratuko ditu artikulu honetan. Honela, interesa duen irakurle espezialduaren esku jarri nahiko lituzke taldeak orain artean egindako bidearen gako nagusiak. • **Hitz-gakoak:** *kulturgintza, hiztun komunitatea, ezagutza, sorkuntza, transmisioa.*

Abstract. Expert Qualification in Basque Culture Transmission. The expert qualification in Basque Culture Transmission is not just an academic offer but a tool for breathing new life into Basque culture. That is why there is an interest in explaining its contribution and assessing it. It may be useful not only for reflection purposes, but also as a model in other communities that have a minority language. Along the same line, the premises of the Sorguneak research group that forms the core of this expert qualification are published in this paper. So the group would like to make available to the specialised reader the main aspects of the path followed so far. • **Key words:** *cultural activity, community of speakers, knowledge, creation, transmission.*

SARRERA

I
2007-08 ikasturtean eskaini zen, lehendabizikoz, artikulu honetan aztertuko dugun Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu-titulua. Aurretiaz, Mondragon Unibertsitateko (MU) Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultatean (HUHEZI) hitz egiten hasiak geunden euskal kulturgintzaren harira formazioa antolatzeko premia eta geneuzkan aukerez. Antzeko premiak antzematen hasiak zeuden, bestalde, Bilboko Zenbat gara elkartearen ingurumarian osatutako Arteola fundaziokoak ere. Hala, bada, Huheziko eta Arteola-ko bulkadek bat egin eta duela 5 urte abian jarri zen EKT, MUren Eskoriatzako campusean. MUren aditu-titulua izateaz gain, Eusko Jaurlaritzak “Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako etengabeko prestakuntza-jarduerak” atalean dauka onartuta (Kodea: 0768221006)

Egungo Huhezi 1976an sortutako Eskoriatzako Irakasle Eskolaren jarraipena da. Gogora ekartzekoa da euskaraz irakasten hasi zen lehendabiziko Irakasle eskola izan zela gurea. Hasiara beretik daukagu egina, beraz, euskal komunitatearen partaide aktibo izateko hautu kontzientea. Horren lekuko, hezkuntza-komunitateari aldi oro eskainitako ekarpen anitzak, eta baita, orobat, euskal kulturgintzari berari eginikoak ere: urteroko haur eta gazte literatura-gida ezagunak, literatura-asteen 13 edizioak, soziolinguistika ikastaroak, Huhezinema film laburren jaialdiaren 5 edizioak, Komunikaldiak-en 7 edizioak, elkarte eta enpresa berrien mintegia, etab. Oraingo honetan dagokigun aditu-titulua, bada, Huhezikideon euskaldun izateko gogoarekin bat dator; alegia, geuk egitea ahal duguntxoa euskal komunitatearen mesedetan, zain geratu gabe beste batzuek egin dezaten gure partez.

Gogoak gogo, ordea, ezin izango genion inolaz ere ekin eta jarraibidea eman EKTri bidelagunik izan ez bagenu. Arteola fundazioaren lankidetzaz gain, instituzioen babesa jaso izan dugu (GFA, BFA eta EJKo Kultura eta Hezkuntza sailena), hedabideek lankidetzan aritzeko aukera eman digute (Berria, Euskadi Irratia, Argia, Goiena, Lanku...), eta makina bat elkarterekin eta enpresarekin elkarlanean aritzeko bidea zabaldu dugu (Bertsozale elkarte, Zenbat gara elkarte, Euskaldunon Elkarte Topagunea, Emun Koop. E., eta abar.), beste makinatxo bat pertsonaren laguntza puntualak inondik inora ahantzi gabe. Bihoakizue, bada, bidelagun guztioi gure esker ona!

Dagokigun aditu-tituluari ekiteko izan genituen kezkei eta arrazoiei buruz, 2007an idatzitakoetatik honakoak ekarriko ditugu gogora:

**2007-08
ikasturtean
eskaini zen,
lehendabizikoz,
artikulu honetan
aztertuko dugun
Euskal
Kulturgintzaren
Transmisioa
(EKT)
aditu-titulua.**

**XXI. mendeko
desafio globalen
arogan, gure
artean
kulturgintzari
buruzko
esperientzia,
gogoeta eta
praktiken biltze-,
sistematizazio-
eta
transmisio-lanik
ez da egiten,
behar beste.**

— XXI. mendeko desafio globalen aroan, gure artean kulturgintzari buruzko esperientzia, gogoeta eta praktiken biltze-, sistematizazio- eta transmisio-lanik ez da egiten, behar beste.

— Gure kulturgintza hezkuntzan egokiago txertatzeko beharra eta horretarako irizpide, esperientzia eta formatzaile falta sumatzen da. Era berean, kulturgintzaren inguruko gogoeta-irizpiderik eta formazioziorik eza nabaritzen da gure elkarteetako, mugimenduetako, udal-letako, hedabideetako eta erakundeetako eragileengan.

Gabezia horiei erantzuten ahalegintzeko Euskal Kulturgintzaren Transmisioari honako helburuak jarri genizkion:

— Euskal kulturgintzari buruzko ezagutza barreiatua korpus baten biltzea, eta formazio dialogiko baten bidez transmititzea. Horren baitan, kulturgintzan azken hamarkadetan sortzaileek izandako kezka, ikuspegi, zailtasun, apustu eta esperientziak belaunaldi berri bati ezagutaraztea.

— Gure kulturgintzak dituen ortzimugen eta desafioen aurrean formazio multifokal eta praktikoa egitea, eragileei jakintza-tresnak emanaz.

— Kulturgintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia partzialak beste alorretakoen eskura jartzea.

— Aurretik esandako guztiak (korpus baten sorkuntza, desafioen gogoeta multifokala, esperientzien transmisioa) bi multzo harremanetan jarriz egitea: batetik aritu eta adituen multzoa, eta bestetik gai honetan jantzi nahi duten gaurko eta etorkizuneko eragileen multzoa.

Kezka horiek zirikatuta eta helburu horiek kitzikatuta, dagoeneko EKTren 3 edizio bideratu ditugu (2007-08, 2008-09, 2010-11) eta 4. edizioa 2012-13 ikasturtean izango da. Gogoan izanda batz bestea 40 ikasle izan ditugula edizio bakoitzeko, esateko moduan gaude bazela eta badela premia unibertsitatean euskal kulturgintzaren transmisioari bidea zabaltzeko. Artikuluan zehar joango gara aletzen premia horri eman ahal izan diogun erantzuna.

Sarrerarekin amaitzeko aipatu beste egingo dugu Sorguneak ikertegia. EKTren bitartez bideratzen dugun formazio iraunkorren osagarri, euskal kulturgintzari buruzko ikerketa ere bideratu nahi dugu Sorguneak-en bitartez. 2009an hasita, 6 lankide dihardugu gaur egun, dedikazio partzialez, ikertegian: Lorea Agirre, Julen Arexolaleiba, Andoni Eizagirre, Nekane Goikoetxea, Jon Sarasua eta Iñaki Urruzola. Horiexek, bada,

euskal kulturgintzaren harira Eskoriatzatik lankidetzan ari garenok instituzioekin politika publikoak aztertzen (batez ere GFArekin aurreko legegintzaldian), euskararen gizarte mugimenduko ekimenei aholkua ematen (Euskaldunon elkarteetan Topagunea, Irrien lagunak kluba, Soziolinguistika Klusterra, etab), gure aletxoak jartzen han eta hemen, bide-lagun. Formazio iraunkorra, aholkularitza eta ikerketa uztartuta, beraz, elkarren arrimuan, elkarren osagarri.

ZER DA EUSKAL KULTURGINTZA? ZER TRANSMISIOA?

I

“Buru adina aburu” dio esaerak eta ez zaio arrazoirik falta. Izan ere, zein nola definitu “kultura” kontzeptua, oro har eta edonon, definizio unibertsal gisa? Ba ote definizio bakarrera iristerik? Kultura(la) izan, dena baita!: gastronomia eta janzeria, musika eta dantza, mitologia eta literatura, eskulturak eta pinturak, gorpuzkera eta mundu ikuskera, eta zer nahi, ia.

Kultura delako kontzeptu unibertsal zedarrigaitz hori, ordea, zein hizkuntzatan bideratzen den aintzat hartzekoa al da? Ba al da euskal kulturgintzaz propio hitz egiterik? Merezi ote du euskaratik eta euskaraz sortzen eta birsortzen den kulturgintzak berezko izenik? Gure ustez, bai, horixe delako hain justu euskal kulturgintzaren izateko arrazoia, horixe delako lehen abiaburua eta azken helburua. Euskal Herrian erdaratik eta erdaraz ari denari ez diogu ba aitortuko “euskal kulturgintzan” lidergorik, ala? Erdarak, beraz, bidelagun bai baina ordezkoko ez!

Formazio iraunkorra antolatzeke eta ikerketa bideratzeko, badugu ideien logika bat, egiten dugun oro gidatzen duen premisa-multzo bat. Konparti ditzagun, bada, premisok artikulatu honen irakurleekin:

1. Euskara eta, horrenbestez, euskal kultura, gizateria osoaren ondarea da. Hala, bada, euskararen berezko lurraldean bizi garen guz-tion erantzukizuna da ondare unibertsal horri eutsi eta hurrengo belaunaldiei ahalik eta bizien transmititzea.

Eleaniztasuna lagun dugula, oso garrantzitsua da ohartzea gaztelaniak, frantsesak eta ingelesak badutela munduan zehar nork indarra eman; euskarak, ordea, inon izatekotan, hementxe bakarrik dauka sortzeko eta birsortzeko aukera.

2. Euskal hiztunen komunitatea izan bada, eta hizkuntza da komunitate horren identitate zeinu nagusia. Euskarak egiten gaitu euskaldun, eta euskaldun izateak egin, egiten eta egingo gaitu unibertsal.

Era berean, kulturgintzaren inguruko gogoeta-irizpiderik eta formaziorik eza nabaritzen da gure elkarteetako, mugimenduetako, udaletako, hedabideetako eta erakundeetako eragileengan.

**EKTren bitartez
bideratzen dugun
formazio
iraunkorraren
osagarri, euskal
kulturgintzari
buruzko ikerketa
ere bideratu nahi
dugu
Sorguneak-en
bitartez.**

3. Euskaldunak euskararekiko osagarritasunean bizitzea ezinbestekoa da euskal kultura biziko bada eta euskaldunik izan izango bada. Bitartekaria, euskal hiztunen komunitatea da. Zientzia soziolinguistikoaren premisak oinarritzat hartu behar dira, hizkuntzaren eta kulturaren gaineko eztabaida serioa posible izan dadin, eta politika egokiak abian jarri ahal izateko. Une honetan egin ahal dena eta euskal kulturak aurrera egiteko behar duena, bi dira.

4. Euskal kulturgintza da euskal identitatearen funtsezko osagaia, eta hizkuntza elikatze, motibatze eta gaurkotze gune sinboliko eta funtzionala. Alegia, euskal kulturgintzak, kultur sormen eta kontsumotik harantzago, badu eragin sakonago bat: euskal nortasunaren elikagai sinbolikoa izateko arrazoiak elikatzea.

Hala, bada, euskal kulturaren muina euskaratik eta euskaraz sortutakoa da. Hori gabe ezin da euskal kulturaz hitz egin. Gainerako hizkuntzetan arituta mesede egin ahal zaio euskal kulturari, jakina!; baina erdigunean dagoena euskarazko sorkuntza bera da.

5. Euskal kultura euskaraz sortzen den kultura da, nagusiki. Berbazko euskarazko kultura, berbazko erdarazko kultura eta ez-berbazko kultura bereizketa egitea funtsezkoa da. Berbazko euskarazko kulturaren eremuan jokatzeko, bereziki, euskararen etorkizuna eta horrenbestez euskal hiztunen komunitatearena eta euskal kulturarena. Ez berbazkoen izaerak (jarraidura / irekitasuna) berebiziko garrantzia dauka euskal delako horren mundu sinbolikoa eraikitzen jarraitzeko.

6. Euskal kulturgintzak konfiantza emango duen taldetasun-sentimendua behar du. Kidetasuna, elkarlana eta konfiantza dira praktika onen iparra.

7. Euskal kulturgintzaren oinarri estrukturalak baliabide, egitura eta profesionalak sustatu eta modu iraunkor batean bermatuko duten azpiegitura, neurri eta erabakiak dira.

8. Euskal identitatea sare bikoitzean jokatzeko da: lehenik eta behin sare sozialean (aurrez aurreko harremanetan, jendea bilduko duten ekimenetan...) eta sare birtualean gero. Norberaren izateko gogotik abiatuta, espazioak irabazten joateko ahaleginean aurrera egitea da gakoa.

9. Euskararen eta euskal kulturaren izaera minorizatuak merkatu doituaren beharra eskatzen dute. Arau berezi eta berariazko batzuk izango dituen merkatua, estatu funtsen bidezko joko arau berezietan. Eta hortik aurrera, lehia. Euskal kulturgintzak ere lehiaren diziplina behar du, berdintasun egoera batean, eta merkatu doitu baten baitan.

Kultur esparru edo adierazpide bakoitzerako doitu behar dira merkatu parametroak modu desberdin eta dinamikoan.

10. Merkatuak, gizarte zibil autoeratuak eta administrazio publikoak osatzen dute kulturgintzak bizi duen eremua, eta hiruren arteko harremana egokitu eta orekatu egin behar da, osagarri izan daitezen.

11. Euskal kulturgintzak ekosistema osotu eta orekatu baten beharra du. Euskal kulturgintzaren esparru edo adierazpide bakoitzak beren esparrua ekosistema moduan lantzen hastea eta berau biziberritzeko elementu nagusien plangintza egitea hiru arlotan: transmisioa, sustapena eta jakintza.

12. Euskal kulturgintza garatu eta bermatzeko logika nagusia esparru modernoan dago. Irudikari kolektiboak eta erreferentzia solidoak behar ditu, ez logika berantiarrek edo postmodernismoak dakartzan erreferentzien galera, ziurgabetasuna, zentzu-gosea, indibidualismoaren eskubideen erregetza eta identitate iragankorrak.

13. Euskal kulturgintzak eskaini dezakeen onenak berezkitasuna eta benetakotasuna ditu. Horien bitartez lortuko du hiztun komunitatearentzat elikagai izatea eta kanpora begira interesa piztea. Euskaraz sortzen den kulturak eremu asko ditu berri. Hizkuntza zaharra izanik, asko du berri esateko, eta hori da bere berezitasunetako bat, eta bere benetakotasuna: euskaraz, euskalduntasunez eta euskaratik abiatuta igaro behar dira prozesuak. Hori da gakoa.

14. Euskal sortzaileek aurreko guztien beharra dute, sortzen eta birsortzen jarraituko badute datozen hamarkadetan. Orain arte heldu izanak ez digu ziurtatzen aurrerantzean ere izaten jarraituko dugunik. Euskal komunitatearen izateko gogoia elikatzen jarraitzea da, beraz, sormena bideratzen laguntzen duten politika eta estrategia guztien funtsa.

Honaino, bada, euskal kulturgintzari begiratzeko darabilgun ispi luaren ezaugarririk garrantzitsuenak. Horietatik abiatuta bideratzen dugu ahalegina, landu eta konpartitu egin nahi duguna inguratzen zaizkigun irakasle eta ikasle guztiekin. Gure hautua da ekarri(ko) ditugun irakasleak premisa horiek elikatzea etortzea; hots, ideien logika nagusi horren baitan elkar aberastera, eztabaidatzera, proposamen berriak iradokitzea. Sakoneko begiratu horren baitan kokatzen ez ditugun adituei eta arituei ez diegu lekurik egin izan, denbora, izan ere, mugatua baita eta denbora bera egoki aprobetxatzea artea. Esan beharrik ere ez dago, era berean, ezin izango direla inoiz etorri EKTra guk geuk ekarri nahiko genituzkeen guztiak.

**Zein nola
definitu
“kultura”
kontzeptua, oro
har eta edonon,
definizio
unibertsal gisa?**

***Euskal Herrian
erdatatik eta
erdaraz ari
denari ez diogu
ba aitortuko
“euskal
kulturgintzan”
lidergorik, ala?
Erdarak, beraz,
bidelagun bai
baina ordezeko ez!***

Aditu-tituluaren funtsezko ardatz bat da **ezagutza biltzea**: Euskal kulturgintzaren inguruan arituek eta adituek duten ezagutza biltzea eta XXI. mendeko desafioei begira jartzea. Biltzea ez ezik **ezagutza sortu** ere sortu nahiko genuke: a) Gai batzuk espreski graduondoko honetarako sortuak direlako, b) ezagutza biltzean emaitza batura baino handiagoa izango delako, eta c) formazioaren transmisio dialogikoak galdera berriak eta erantzunak sor ditzakeelako.

Ikasleei dagokienez, darabiltzagun premisa hauekin bat egiten dutenak izan ohi ditugu ikasle, logikoa denez. Ikasle askok badute aldez aurretik EKT antolatzen ari garen lankideon berri, ikusten du aditu-titulura dakargun irakasleen perfila zein den, jantzi egin nahi du ibilbide profesionala hobeto bideratzeko, partaide izan nahi du ehuntzen ari garen sarean... Horrenbestez, iradokitzailea iruditzen zaio eta izena ematen du.

Ezagutza bildu eta sortu nahi dugu, hain justu, **ezagutza transmititzea** dugulako azken helburu. Izan ere, transmisioak batzen baititu bere baitan, gure ustez, orain arte izandakoa, gaur egun garen hori eta etorkizunean izan gaitezkeena. Ez gaude atzera begira, aurrera begira baizik. Horixe da guretzat euskal kultura transmititzea: euskaldunon hizkuntza-komunitatearen betidaniko izateko gogo horri eustea, sortzen eta birsortzen, ereiten jarraitzea. Euskal kulturgintzaren ikuspegi diakronikoa interesatzen zaigu oraingo kulturgintza hobeto ulertzeko irakaspenak eskaintzen dizkigulako, ez “per se” zaku zabal horretan landu ahal izango lirartekeen gai guztiak landu nahi ditugulako.

Oraina eta orainaren geroa ditugu jomuga, horra begira daukagu jarrita transmisioa.

Hala, bada, sortutako korpus hori transmititu nahi diegu ikasleei, elkarrekin eraiki, ondoren beronen transmisioan paper biderkatzailea izango duten eragile izaten jarrai dezaten (irakasleak, gizarte-erakunde-etako langileak, kultura teknikariak, etorkizuneko sortzaile, ikertzaile eta bultzatzaile potentzialak).

Laburbilduz, XXI. mendeko galdegaiei begira, euskal kulturgintzaren transmisioa ipar duen formazio-eskaintza eman nahi dugu EKTren birtatez. Gure herriarentzat funtsezkoa den dimentsio honetarako jakintza-tresnak sortzeko gune izan nahi dugu eta ekinbideak hedatzen joateko bozgorailu.

Orain arteko esperientziak irakatsi digu delako transmisio horrek norabide asko hartzen dituela. Aurrez aurre bizi izandakoa ikasgelan, solasgai bihurtzen da mintegietan, elikagai ikasleen proiektuetan.

Jomuga handi-zabal horietara hurbiltzen joateko, hona hemen EKT egituratzeko erabili ohi dugun hezurdura:

Formazio teoriko-praktikoa: adituak mintzo

- Hizkuntza komunitateen dinamikak. Kulturgintza kokatzeko oinarri teoriko-praktikoak.
- Egungo gizarte aldaketak eta kulturgintza.
- Komunikazioa eta egungo teknologia aldaketak eta kulturgintza.
- XXI. mendeko egoeran euskal izaeraz gogoeta.
- Kulturgintzari buruzko teoriak eta kulturari buruzko diskurtso desberdinak euskal komunitatearen historian.

Testigantzen bidezko formazioa: arituak mintzo

- Kantagintza. Bideak eta norabideak.
- Bertsoarritza. Iragana, orain eta geroa. Hogei urteko estrategia mamitua.
- Literaturgintza. Sorkuntza eta proiektua.
- Beste hainbat kulturbide. Esperientziak eta ortzimugak.
- Oinarrigintza. Egitura-esperientziak.
- Hezkuntza: Balantzea eta aurrerabideak.
- Kulturgintza gertuko komunitatean. Esperientzia eredugarriak

Tutore-mintegiak: ikasleak mintzo

- Adituen eta arituen irakaspeni ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.
- Irakaspenak nor bere interesguneetara egokitzeko.
- Aldiro-aldiri gogoetak eta esperientziak trukatzeko

Ikasleen proiektua: oro mintzo

- Ikasleek, bakarka zein taldeka, proiektu bat garatuko dute ikastaldian zehar.
- Proiektu hori aurrera atera ahal izateko, ikasleak berak auke-ratutako tutorearen laguntza izango du.

Orain arte irakurritakoetatik ondoriozta daitekeenez, badute lotura beren artean premiseak eta eskaini ohi dugun formazioak. Antza dute edukietan eta emateko moduan ere bai. Guretzat euskal kulturgintza bera da elementu transbertsala, gainerako guztiak (gizarte-aldaketak, teknologia berriak, jakintza-eremu anitzetako irakaspenak, testigantzak...) berau aztertzeke darabiltzagu, era dialogikoan partaide guztion artean.

Jakinaren gainean gaude ezin diogula kultura kontzeptuaren osotasunari heldu, ezinezkoa litzateke nahi izanda ere. Alde horretatik, gabeziak antzematen ditugu guk geuk ere, jakintza-gaiei zein emaleei dagokienean, baina aukeratu egin behar izaten dugu! Testigantzei dagokienean, ahozko eta idatzizko euskal kulturgintzaren aldeko hautuari heldu diogu, bereziki, arituak hautatzerakoan.

***Euskal kultura
euskaraz sortzen
den kultura da,
nagusiki.***

***Euskal
kulturgintzak
ekosistema osotu
eta orekatu baten
beharra du.***

***Euskal
kulturgintzak
eskaini dezakeen
onenak
berezkotasuna
eta
benetakotasuna
ditu.***

**Aditu-tituluaren
funtsezko ardatz
bat da ezagutza
biltzea.**

**Biltzea ez ezik
ezagutza sortu
ere sortu nahiko
genuke.**

Azpimarratzekoa iruditzen zaigu, labur bada ere, EKTren izaera heterogeneoa, irakasleei zein ikasleei dagokienean, ez baita ohikoa unibertsitatean formatu hau —ez inguruan, ez beste inon guk dakigula— eta ezta unibertsitatekan kanpora ere. Gorago esan bezala, irakasleak aukeratzeko tentu handiz ibili ohi gara, ez baita gure asmoa euskal kulturgintza delakoaren harira dauden ikuspegi teoriko-praktiko guztien berri ematea, geure premisak elikatzen etorriko diren adituak eta arituak ondo aukeratzeko baizik. Ondo aukeratu hizlariak eta alde aurretik ahalik eta ondoen zehaztu non ikusten dugun beraien ekarpena, jakinarazi zein eduki- eta testigantza-multzo ekarri ahal diguten euskal kulturgintza beti erdigunean dela. Horrenbestez, HUHEZItik kanpokoak izaten dira irakaslerik gehienak, gurekin lankidetzan aritzea onartu dutenak, bidelagunak. Ez da ohikoa hori beste unibertsitateetako aditu-tituluetan. Elkarren ezagutzatik egitasmo berriak sortzen dira, beste sare batzuk elikatzen jarraitzeko sinergiak batu, taldetasuna sentitu.

Eta ez da ohikoa unibertsitateetako ohiko eskaintza akademikoan, era berean, EKTra datorren ikasle-profila bera ere. Aditu-titulu hau ez dago bereziki lotua lan-merkatuari, ez du aukerarik ematen ECTSak lortzeko doktore-tesiaren aurretiko gisa, ez dio ikasleari berehalako aterabiderik eskaintzen jardunbide profesionalean izan ditzakeen ardurez, ez du hurrengo goizean aplikatzeko moduko errezetarik aurkituko euskal kulturgintzaren erronkei erantzuteko... Zergatik datoz orduan batez beste 40 ikasle edizio bakoitzeko? Kontuan hartzekoa baita gehien-gehienak lanean dihardutela, 2000 euroko matrikula ordaindu behar dutela, asteazken arratsalde oso-oso bat astero “libratu” behar dutela —uda eta negu— Eskoriatzaraino etortzeko formazioa jasotzera eta konpartitzera, partaide aktibo izatea eska(in)tzen diegula hasieratik amaierara; eta, gainera, proiektu bat aurkeztu behar dutela amaitutakoan titulua eskuratu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, jendea etorri egiten da, eta, gainera, oso-oso baja gutxi izan ohi ditugu ikasturtean zehar. Aurrerago aztertuko dugu sakonxeago ikasleen profila.

Bada EKT ez ohiko bihurtzen duen beste ezaugarri bat ere: hedabideetan izan ohi duen oihartzuna, hain justu. Transmisioaz ari garela, kontzeptu hori ez dugu mugatu nahi izan HUHEZItik ikasgelara. Gela “tropikalean” sakonago eta patxadatsuago landutakoak gizarte osoaren eskura jartzeko ahalegina egin nahi izan dugu. Aukera bat da eta heldu egin diogu, lanak lan.

Lehenengo ediziotik bertatik Euskadi Irratian jarraitu ahal izan dira EKTri buruzkoak. Orain arteko hiru edizioetan, aditu-tituluak iraun bitartean, irratsaioa osatu dute astero. Xabier Sukia, Imanol Manterola eta

Joanes Imaz kazetariak arduratu dira, hurrenez hurren, asteroko lan horretaz. EKT aditu-tituluko ikasle izan eta astero bertan esandako jokadirik interesgarrienak” jaso, segituan “Euskal Kulturgintzaren Transmisioa” izeneko 30 minutuko irratsaioa osatzeko. EITBren webgunean bilduta dauzkate edizio guztietako irratsaioak. Esker oneko gatzazkie, bidenabar, saioaren emisioa ahalbidetu duten guztiei.

Berria egunkariak 2. eta 3. edizioen berri eman du, EKTren jardunak iraun bitartean, asteroko “Arbelari begira” kronikaren bitartez. Jon Eskisabel eta Ainara Gorostizu izan ziren ikasle-kazetari kronikagileak 2008-09an eta Beñat Gaztelumendi “todoterreno aparta” 2010-11 ikasurtean. Zertaz ari garen jakingo du honaino iritsi den irakurleak. Hitzetan ez da erraza adieraztea kazetari eta kronikagile horiei guztiei diegun begirunea, beraiek izan dira EKTren bozgorailu, transmisioaren beste katebegi bat. Berria.info-ko bideo laburrei esker, bestalde, zabaldu ahal izan ditugu astero-astero 2. eta 3. edizioetako hizlarien esanak.

Eta asteroko lankidetzaren horiez gain, aipatu eta eskertu egin nahi dugu, orobat, Argia aldizkariak 2010eko martxoan EKT aditu-tituluz apailatu zuen monografikoa Larrunen; aipatu eta eskertu Goienako lankideen eskuzabaltasuna gurekiko, sare sozialetako lagunen gertutasuna, etab. Mila esker, bada, “Herri jakintza nahi dugu eta jakintza herriarentzat nahi” bideratzen lagundu diguzuen guztioi. Jarrai dezagun bidelagun, jakintza zabaltzen, sarea ehuntzen... aurrerantzean ere.

Hedabide horietako bakoitzarekin egindako ibilbidearen batura Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren webgunean ikus daiteke: <http://www.mondragon.edu/eu/Huhezi/ekt>.

Bertan aurkituko du interesatuak, bada, orain arte esandako guztien berri: emaileen lekukotzak, kronika- eta irratsaio-bildumak, ikasleen iritzia, antolatzaileen gogoetak, Sorguneak ikertegiaren lanak, etab. Dakienak badaki era honetako webak elikatzea zein nekeza den!, etxe barruan eta kanpoan zenbat lan metodiko eskatzen duen asteroko zitari eusteko. Horrexegatik da horren eskertzekoa, ikasle-kazetarien adonez gain, Huhezinen bertan saioak grabatzeaz eta bideo laburrak editatzeaz arduratu izan diren lankideak. Letra larriz idazten ditugu guk lehenengo bi edizioetan egiteko horietan aritu ziren Amaia Pavon, Maialen Kaltzarkorta eta Uxue Urtzelainen izenak, eta Kepa Matxainen izena bera ere maiuskulaz 3. edizioari dagokionean. Joxe Aranzabal izan da webaren eragile- eta txindurri-lanetan beti ondoan sumatu dugun lankide nekezina. Eta ondoko mahaiko Goio Aranek egin izan digu matrikula garaiko triptiko dotorea, dedikazio arautuari gehiegi begiratu gabe. Eta orain eta hemen izenen zerrenda luzatzeko asmorik ez badugu ere, ezin utzi

***Ezagutza bildu
eta sortu nahi
dugu, hain justu,
ezagutza
transmititzea
dugulako azken
helburu.***

**Euskal
kulturgintzaren
ikuspegi
diakronikoa
interesatzen
zaigu oraingo
kulturgintza
hobeto ulertzeko
irakaspenak
eskaintzen
dizkigulako.**

aipatu gabe Huhezi barruko logistika guztia: matrikulak eta ziurtagiriak bideratzen dituztenak, ordainketak bideratu eta ahaztu zaizkigunak gogorarazten dizkigutenak, aldiro-aldiro animatzen gaituztenak egiten ari garena egiteko. Huhezin bertan ere oihartzun zabala izaten baitu EKT aditu-titulua, ikusiko dugunez.

Bere garaian sumatu genuen beharra benetakoa zen, beraz. Ez ginen oker! Gonbidatu nahi izan ditugun ia ia guztiak eman digute baietza eta prest agertu dira saioetan esandakoaren funtsa hedabideen bitartez zabaltzeko. Ez ohiko aditu-titulua izanda ere, abian jartzeko adina ikasle eta gehiago izan ditugu edizio guztietan, hainbat elkarte eta enpresa lagun izan ditugula. Biltzen joandako jakintza bere burua euskal kulturgintzan kokatzen duen askori transmititzeko modua egin dugu hedabideekiko lankidetzari esker. Horixe nahi genuen eta halaxe jarraitu nahi dugu. Bildu, sortu, transmititu.

Gidatzen gaituen ideien logikaren arabera, bukatzeko, EKTn alde zehaztutako premisen bidetik ari garelakoan uste dugu. Subjektu ez gara gu, antolatzaileok, euskal kulturgintza bere osotasunean baizik. Denok haren zerbitzura, geurearen zerbitzura.

ZEINTZUK DIRA ADITU-TITULUAREN ORAIN ARTEKO EMAITZAK? ZEINTZUK AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK?

I

Aditu-titulua lau zatitan banatu ohi dugu denboralizazioari dagokionean. Guztira 330 ordu dituela esan ohi dugu, era honetara banatuta.

1. Taula: Euskal Kultur Transmisioaren eduki-arloak eta orduak

EKTren formazioa: eduki-arloak	Orduak
Adituak mintzo: formazio teoriko-praktikoa	80
Arituak mintzo: testigantzak	80
Ikasleak mintzo: tutore-mintegia	70
Oro mintzo: proiektua	100

Edizio bakoitza ikasturte batean ematen da, urritik ekainera bitartean. Astean behin elkartu ohi gara partaideok, asteazkenetan, arratsaldeko 15:00tik 20:00ra bitartean. Normalean asteazkenenero bi saio izan ohi ditugu, eta ordu erdiko atsedena erdian.

Adituak eta arituak tartekatu egin ohi dira ikasturtean zehar, adituak hasierako saioan eta arituak atsedenen ondotik. Tutore-mintegiak bideratzeko ere alde zehaztutako erabakitzen dugu zein egunetan zein tarte

hartu, hiru astean behin-edo. Proiektua bideratzen hasteko aukera ikas-turtearen hasiera beretik ematen zaio ikasleari.

Irudika daitekeenez, beraz, emaile asko pasatzen dira guretik, denbora laburrez: emaileen joan-etorri amaigabea, nor bere ezaugarri berezi(tu)ekin, kaos puntutxo bat ere bai aldian behin.

Irakasle asko pasatu da, bai!, EKTtik. Hiru edizioetakoak batuz gero, 116 lagunek osatutako zerrenda ateratzen zaigu, 40 inguru ikasturteko. Izaera ezberdinetakoak, baina denak irakasle, zein bere saihetsetik.

Aditu deitu ohi diegun irakasleen artean, unibertsitatean dihardutenak dira horietako asko, gehienak EHU/UPVkoak. Ohikoa irakasleak Eskoriatzara bertaratzea izan bada ere, baliatu izan gara bideokonferentziaz ere: Joseba Zulaika antropologoa Renotik aritu zitzaigun bigarren edizioan eta Asier Atutxa filosofoa New York-etik hirugarrenean. Jite honetako irakasleentzat, oro har, ezaguna(goa) da Eskoriatzako formatua, aurrez aurrekoa, azaldu beharrekoa ere “formateatuta” daukate gutxi-asko guregana etorri aurretik.

Aritu izendatu ohi ditugunen artean, berriz, aldez aurreko perfil akademikoak ez du berebiziko garrantzirik. Egi(te)n dutenagatik ekarri nahi izaten ditugu, kultura sortzeko edota hedatzeko egiten duten ekarpenagatik, titulazioak titulazio. Gazte nahiz heldu izan Euskal Herri luze-zabaletik etorri zaizkigun horiek, gehientsuenentzat esperientzia berria da unibertsitatean klasea ematearena. Gurera etortzeak lagundu egin ohi die norberaren ibilbidea kontatzen, formateatzen bizi izandakoa, era ulergarrian transmititzen. Badauka horrek ere meritua, badaukanez!

Ohiturak ohitura eta erraztasunak gorabehera, atzera begiratu eta goraiatzekoa da horrenbeste norbanakoren ekarpena. Pentsatzen jarrita, asko eskatzen diegula iruditzen zaigu: gure gonbitea onartzea, saioa prestatzea guk jarritako lehenetasunen arabera, saioa eman bitartean bideoz grabatua izateko baietza ematea, saioa bera sakon eta era atseginean ematea, partaideen galderi erantzutea... eta gero hedabideetan agertzeko prestatzea, labor eta ondo azaltzea esandakoaren mamia, norberaren irudia eta ahotsa plazara ekartzeko prest agertzea... Bakarrak esan digu ez zegoela prest saioa grabatu eta hedabideetan agertzeko, eta errespetatzekoa da, jakina. Horrek, ordea, nabarmen adierazten du gainerako guztiak prest izan direla ziklo osoa egiteko.

Irakasleak eta edukiak, aldaketak aldaketa, ez ditugu errepikatzen edizio guztietan. Jasotakoa bildu, prozesatu eta hurrengo edizioetan EKTko batzorde pedagogikoan ari garenok laburbiltzen ditugu hizlari askoren ekarpen anitzak. Horrenbestez, jakintza metatuz goaz edizioz edizio, edukiak destilatu eta hurrengo ediziozko ikasle-taldearen eskura jartzen.

**Jakinaren
gainean gaude
ezin diogula
kultura
kontzeptuaren
osotasunari
heldu, ezinezkoa
litzateke nahi
izanda ere.**

**Azpimarratzekoa
iruditzen zaigu,
labur bada ere,
EKTren izaera
heterogeneoa,
irakasleei zein
ikasleei
dagokienean, ez
baita ohikoa
unibertsitateetan
formatu hau eta
ezta
unibertsitatetik
kanpora ere.**

Multzoka ditzagun irakasleak, erraza ez bada ere multzo bakarrean sartzea, ekarri ditugun helburu behinenean arabera:

1. Hizkuntza komunitateen dinamikak. Kulturgintza kokatzeko oinarri teoriko-praktikoak

Aierdi Xabier Dr., Amezaga Josu Dr., Amonarriz Kike, Apodaka Eduardo Dr., Antero Amaia, Arexolaleiba Julen (H), Arruti Iñaki, Iñurrategi Iñigo (H), Irigarai Jose Angel, Irizar Mikel, Baxok Erramun Dr., Gartzia Joxerra Dr, Hernandez Jone Miren Dr., Lujanbio Maialen, Martinez de Luna Iñaki Dr., Leizaola Aizpea Dr., Odriozola Joxe Manuel, Olariaga Andoni, Esteban Mari Luz Dr., Sarasua Jon Dr. (H), Sors Joxemari, Zubiaga Mario Dr., Zulaika Joseba Dr.

2. Euskal kulturgintzari buruzko irakaspenak, diakroniatik: lehenaren oraina

Amundarain Dionisio, Amuritza Xabier, Bidegain Eneko Dr. (H), Etxamendi Eñaut Dr., Etxegoien Juan Carlos "Xamar", Goikoetxea Nekane Dr. (H), Intxausti Joseba Dr., Iztueta Paulo Dr., Larrinaga Ane Dr., Manterola Ander, Mendiguren Bereizartu Xabier, Narbaiza Antxon Dr., Peillen Txomin Dr., Torreal dai Joan Mari Dr., Zalbide Mikel, Zuazo Koldo Dr., Zugaza Leopoldo, Zuberogoitia Pedro.

3. Euskal Kulturgintza XXI. mendean

3a) Egungo gizarte aldaketak eta kulturgintza

Artze Joxanton, Atutxa Asier, Azkarraga Joseba Dr. (H), Bereziartua Gorka, Eizagirre Andoni Dr. (H), Etxarri Joseba, Galfar-soro Imanol, Oregi Benan.

3b) Egungo teknologia aldaketak eta kulturgintza

Arantzabal Iban, Aranzabal Joxe (H), Azpillaga Patxi Dr., Fernandez Luis, Goñi Maite (H), Julio Gorka, Landa Josu, Sarasua Asier, Zuberogoitia Aitor Dr. (H).

4. Testigantzen bidezko formazioa

4a) Kantagintza. Bideak eta norabideak

Aristi Pako, Eskisabel Jon, Etxart Niko, Lertxundi Benito, Montoia Xabier, Muguruza Fermin, Ordorika Ruper, Perez Juan Carlos, Rodriguez Ibon, Urruzola Iñaki (H), Zabala Josu, Zubiria Amaia.

4b) Bertsolaritza. Iragana, oraina, geroa

Azkune Laxaro, Egaña Andoni, Lazkano Imanol, Tapia Koldo.

4c) Literaturgintza. Sorkuntza eta proiektua

Landa Mariasun (Dr.), Lertxundi Andu, Lete Xabier, Rozas Ixiar (Dr.) (H), Uribe Kirmen.

4d) Beste hainbat kultur bide. Esperientziak eta ortzimugak

Araolaza Oier Dr., Gostin Andres (H), Indart Jean Leon, Lasa Joxe Angel Dr., Luku Antton, Moreno Javi Dr., Olasagasti Eneko, Vitoria Jose Ramon Dr. (H), Urbeltz Juan Antonio.

5. Oinarrigintza. Esperientzia eredugarriak

5a) Hezkuntza

Artola Iñaki, Barquin Amelia Dr. (H), Bilbao Begoña Dr., Cristobal Rafael Dr., Ezkurdia Gurutze Dr., Perez de Urraza Karmele Dr.,

5b) Euskal kulturgintza gertuko komunitatean, gizartetik

Agirre Lorea (H), Agirretxe Jose Mari "Porrotx", Agirrezabal Uxo, Alfaro Estitxu, Barandiaran Gotzon, Elortza Igor, Esnaola Enekoitz, Etxaburu Teo, Etxeberria Amagoia, Gabilondo Amaia, Ibarra Eneritz, Irazabal Jon, Iturriotz Alfredo, Lapouble Maika, Nazabal Jokin, Oltzomendi Argia, Ugalde Jon.

5c) Administrazioan

Agirre Garbiñe, Aranguren Lurdes, Larraza Irene, Urdangarin Josean.

(H)dunak, Huheziko irakasleak

Hedabide horietako bakoitzarekin egindako ibilbidearen batura Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu-tituluaren webgunean ikus daiteke:
<http://www.mondragon.edu/eu/Huhezi/ekt>

Ikasleei dagokienean ere, bestalde, heterogeneotasuna da nagusi. Aniztasuna jatorriei eta lanbideei dagozkienetan. Ikasle asko aspaldi pasatu ziren unibertsitateetik eta bueltatu egiten dira berriro. Oso gutxi izan ohi dira gure artean beste aditu-titulu batzuetan nagusi izaten diren graduatu berriak.

Ikasleak erakartzeko bide bat instituzioekin, elkarteekin eta enprekin jarraitzen dugun bidea da. Interesgarritzat jotzen dute gure eskaintza eta langileen formazio-planak bideratzeko orduan aukera ematen diete asteazken arratsaldeetan EKTRA etortzeko. Bada ikaslerik matrikula ordaindua izan duenik, osorik edo zati batean. Azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin bideratutako lankidetzaren IRALE programan diharduten irakasleen formazio-gune izan zedin EKT. La-kuara agintari berriak etorritakoan, moztu egin zen lankidetzaren hori, euskal kulturgintzari dagozkionak garrantzia galdu duten seinale. Edozelan ere, 1. edizioan 14 ikasle eta 2. edizioan beste 2 ikasle izan genituen IRALetik etorriak. Bertsozale elkartearekin ere hasiera beretik dator lankidetzaren. 3. ediziotan 15en bat ikasle etorri zaizkigu, langileak eta elkartearekin engeiatuak, denetik. EMUN Koop. E.-tik ere edizio bakoitzera 2 ikasle etorri zaizkigu eta koadrilatxoak da, era berean, Euskaldunon Elkartearen Topagunetik eta bertan federatutako elkarteetatik hurbildu zaizkigunak. Hala, bada, bide honetatik osatu ohi dugu ikasleriaren multzo

**Biltzen joandako
jakintza bere
burua euskal
kulturgintzan
kokatzen duen
askori
transmititzeko
modua egin dugu
hedabideekiko
lankidetzari
esker.**

esanguratsua. Bigarren bidea banaka datozenek osatzen dute, nor bere interesek bultzatuta. Heterogeneoa eta anitza izanik ikasleen izaera, hori berori bihurtzen da emankor. Irakasleen multzoa da esanguratsuen, eskoletakoak eta euskaltegietakoak. Administrazioan ari dira beste batzuk hizkuntza-teknikari gisa, kulturaren hedatze-lanetan beste batzuk, eta ikasle eta jubilatutako gutxi batzuk ere bai. Tamalez, ordea, administrazioan kultura-teknikari lanetan ari diren oso ikasle gutxi izan dugu orain artean. Badugu, beraz, nora jarraitu begiratzen, non lantzen jarraitu.

EKTra etortzeko arrazoiez galdetuta, euskal kulturgintzari buruz ikuspegi panoramikoa jasotzeko egokia dela dioskute, luxua dela aditu eta aritu ezagunei bertatik bertara entzun eta galdetu ahal izatea, tutore-mintegietan ikasleen arteko igurtzia sumatu eta lagun berriak egin dituztela, baliagarria izan zaiela proiektua egitea buruan zerabilten asmoren batean aurreratzeko, aurreko edizioaren batean izandako lagun batek aholkatuta etorri direla. “Izena eman nuenean, neure buruari egingdako opari moduan egin nuen, eta asteazkenero disfrutatuta izan dut opari hori” zioen batek; beste batzuek, berriz, EKTri adjektibo bat jartzeko eskatuta, halakoak idatzi dituzte: “erakargarria, koloretsua, aberasgarria, interesgarria, atsegina, mamitsua...”.

Halako erantzunak jaso ohi ditugu galdezka joanez gero zergatik etorri diren EKTra. Poztekoa, benetan.

Edozelan ere, lehenago ere aipatu dugun eran, EKTran ikasle tipikoa nahikoa lanpetuta ibili ohi da bere egitekoetan eta ahalegin berezia egin behar izaten du asteazkenero etortzeko. Saiotik saiora ez du denbora askorik izaten etxean gaiak sakontzen jarraitzeko, hurrengo astean etorriko diren irakasleen berri jasotzeko. Horiek guztiak aintzat hartuta, bidea jarri dugu emaileri buruzko aurkezpen-lan horiek eginda aurkitzeko ikasleek astero: 3. edizioan Patxi Gezuragari beka eman eta bera arduratu zen ekultura.net blogaren bidez lan horiek bideratzeaz.

Ikasleen izaeraz hobeto jabetzeko lagungarri izango zaizkigu honako taulak:

2. Taula: Euskal Kultur Transmisioa: Ikasle-kopurua

EKT	Ikasleak
1. edizioa	58
2. edizioa	23
3. edizioa	34
Guztira	115

3. Taula: Euskal Kultur Transmisioa: Ikasleen sexu-banaketa

EKT	Ikasleak
Emakumeak	56
Gizonak	59
Guztira	115

4. Taula: Euskal Kultur Transmisioa: Ikasleen adin-tarteak

Adin tarteak	Ikasleak
20-30	27
30-40	42
40-50	39
>50	7
Batez beste	34 urte

5. Taula: Euskal Kultur Transmisioa: Ikasleen ohiko bizitokia

Bizitokia	Ikasleak	%
Gipuzkoa	56	%48
Bizkaia	43	%37
Araba	9	%8
Nafarroa	5	%5
Iparraldea	2	%2
	115	%100

6. Taula: Euskal Kultur Transmisioa: Ikasleen formazio-jatorria

Ikasketak	Ikasleak
Filologia(k)	20
Irakasletza	15
Filosofia	11
Informazio-zientziak	10
Ekonomia eta enpresa zientziak	6
Arte ederrak	5
(Psiko)pedagogia	5
Ingeniariak	4
Geografia eta historia	4
Zuzenbidea	4
Humanitateak	4
Fisika	3

Eta beste (dokumentazioa, biologia, lan harremanak, publizitatea, antropologia...)

Emaille asko pasatzen dira guretik, denbora laburrez: emaileen joan-etorri amaigabea, nor bere ezaugarri berezi(tu)ekin, kaos puntutxo bat ere bai aldian behin.

Irakasleak eta edukiak, aldaketak aldaketa, ez ditugu errepikatzen edizio guztietan.

**Ikasleei
dagokienean ere,
bestalde,
heterogeneotasun
a da nagusi.
Aniztasuna
jatorrieta
lanbideei
dagozkienetan.
Ikasle asko
aspaldi pasatu
ziren
unibertsitatetik
eta bueltatu
egiten dira
berriro.**

Hala, bada, ikasleen batez besteko adina 34 urtekoa da. Gaztea, beraz, baina ez gradua bukatu berria. Lanean aritua eta formatzen jarraitu nahi duena, titulazio honen behar pragmatiko handirik ez badu ere, nahiz eta beti den lagungarri. Gizonezkoak eta emakumezkoak paretsu. Gipuzkoarrak nagusi (%47), bizkaitarrak gero (%38) eta hurrenez hurren Arabatik, Nafarroatik eta Iparraldetik astero Eskoriatzara etorritako ikasleak.

Ikasleen ikasketei dagokienean, euskal filologoak ditugu nagusi, irakasle, filosofo eta kazetariekin batera. Hortik aurrera aniztasuna jaun eta jabe. Antzematen da aniztasun hori ikaskideen arteko giroan; izan ere, formazioak formazio, ertz askotatik heldu ahal baitzaio euskal kulturgintzari ondotoxo konturatzen ari garenez.

EKTren beste ezaugarri bat **tutore-mintegien** bitartez bideratu ohi dugu. Adituen eta arituen ekarpenez gogoeta egiteko balio digute, interesen arabera taldekatzeak bideratzeko, alde aurretik ikasleen artean landutako gaietara buruz iruzkinak idazteko, etab. Gogora ekar dezagun 1. edizioan bi lan labur egin behar izan zituztela ikasleek aditu-titulua iraun bitartean; 2. eta 3. edizioetan, ordea, beste bide bati heldu genion. EAEko Euskararen Aholku Batzordeak bideratutako Euskara 21 gogoeta-prozesuaz aritu ginen bigarren edizioan: testua aztertu, iritzi-emileen esanak irakurri, elkarri kontatu eta nor bere iritzia azaldu zuen idatziz. Beste horrenbeste egin genuen 3. edizioan “Kulturaren euskal plana” gaitzat hartuta. Lan guztiak bildu eta txosten potoloak atera dira guztion ekarpenak bilduta. Alez ale, belar meta.

Ikasleek EKTri egiten dioten kritikarik errepikatuena tutore-mintegiei denbora gutxi eskaintzearena izan ohi da. Gustura daude arituei eta adituei entzuten, baina denbora behar dute elkarri gehiago eta gehiagotan entzuteko, norberak dakartzan esperientzietatik elkar aberasteko. Inoiz ez dela aski izango jakinagatik, saiatuko gara gabezia horri aurre egiten datozen edizioetan, klasean bertan. Eta saiatu egin behar gara, orain artean baino gehiago, ahal duenak aukera izan dezan klase orduetatik kanpo ere hartu-emanetan jarraitzeko ikaskideekin eta emaleekin. Denok ezingo dute beti, baina aukera ematen jarraitu behar dugu EKTren webgunearen bitartez.

Proiektuez hitz egiteko ordua iritsi da. Ikasleek titulua eskuratu ahal izateko proiektu bat egin behar izaten dute, bakarrik edo taldean. Proiektuaren gaia ikasleek aukeratzen dute eta baita proiektuaren tutorea bera ere. Ez dauka zertan Huheziko kide bat izan tutorea, ikasleak aukeratzen du. Tutorearen laguntzarekin bidea egin eta tutoreak onetsitakoan aurkeztu egiten dute epai-mahai baten aurrean. Fase horretaraino iritsitakoek denek gainditu ohi dute. Edozein modutan, makina bat arrazoi direla-

eta, ez dira ikasle guztiak iristen proiektua egitera, ezinezkoa izaten zaie denbora ateratzea eta epeak betetzen joatea. Ikasleen %20 ez da iristen proiektua aurkeztera. Gainerako guztiak bai, ordea. Eta zertaz dihardute, bada, ikasleen proiektuak? Multzokatzen hasi nahi izateak dakartzan zailtasunak gorabehera, hona hemen 3 ediziootan bildutakoen zerrenda:

7. Taula: Euskal Kultur Transmisioa: Proiektuak

Irakaskuntza

- Abestuz ikasi. Ikasiz abestu: Haur hezkuntzako 2. zikloko haurrentzat euskal kanten bilketa eta azterketa
- Aho bete kanta: diaporama
- DBHko Euskara ikasgaiko edukiak kanten bidez lantzeko unitate didaktikoak
- Euskal musikagintzaren oihartzuna 00-10 hamarkadan
- Euskal dantza tradizionalak eskolan lantzeko fitxak eta laguntza materialak
- Euskal Literaturaren historia laburra XVI. mendetik XX.era: Ibilbide, idazle eta lanak
- Hizketa adierazkorra: esapide berriak sortzen
- Maizpideko ikasleen euskal identitatea sendotzeko estrategia bat: nozio soziolinguistikoak barneratzea (Xamarren "Orekan" liburuaren irakurketa, lanketa eta haien ebaluazioa)

Enpresa / Elkarrekin / Herria(k)

- Berbaizu Euskara Elkarrekin. Ginena, Garena eta Izango garena. Esperientzia baten transmisio gida
- Debako Kultur taldeen diagnostikoa
- Elgoibarko Izarra kultur elkarrekin: atzera begira, aurrera egiteko (1990-2010)
- Lazkaoko (Goierri) euskal kultur mugimenduaren koordinatzaile: elkarlana-koordinazioa dinamizazioa
- Barakaldoko Laguntasuna kultur elkarrekin
- Arrasate eta Euskal Herriko jaien azterketa laburra eta Arrasaterako esku hartze proposamena
- Oiartzungo kulturgintza aztergai
- Euskal bizitza kulturala herri txikietan
- Euskal kulturaren transmisioa Arizmendi ikastolan
- Euskal kulturgintzaren sustapena belaunaldi berrien aisialdian
- Euskal kulturaren transmisioa diasporan XXI. mende hasieran
- Integrazioetik kulturartekotasunera: San Viatorreko ereduak. Euskara eta euskal kultura etorkinen integrazioan
- Euskal kulturaren dimentsioa arlo sozioekonomikoan euskara normalizatzeko planetan

EKTra etortzeko arrazoiez galdetuta, euskal kulturgintzari buruz ikuspegi panoramikoa jasotzeko egokia dela dioskute, luxua dela aditu eta aritu ezagunei bertatik bertara entzun eta galdetu ahal izatea.

***Ikasleen batez
besteko adina 34
urtekoa da
Iparraldetik.
Ikasleen
ikasketei
dagokienean,
euskal filologoak
ditugu nagusi,
irakasle, filosofo
eta kazetariekin
batera.***

***EKTren beste
ezaugarri bat
tutore-mintegien
bitartez bideratu
ohi dugu.***

- Azterkuxa > Dokumentala: gidoia
- Bertso doinuak gizarteratzeko KDak
- Bertsolaritzaren hedapena eta sustapena XXI. mendean. Bertsolaritza hedabideetan: tratamendua eta kate-sarea
- Bertsozale Elkartearen baloreen eta jardunaren transmisiorako komunikazio irizpideak
- Herriarteko taldekako bertsolari txapelketa, bertsolaritzaren gizarte sarearen eragile
- Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IEPH), Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza Plan Estrategikoa definitzeko tresna

Etnografia /Antropologia

- Argazkiak bidelagun, memoriaren adierazpena
- Euskara, sentimenduak eta bizipenak
- Euskal Herria: migrazio handien lurraldea
- Munduan adi egoteko modu bat
- Euskaldunon bizimodua gure ama-amonen begietan
- Emakumeen (h)itzalean: dokumentala

EKTren hedapena / Sormen estetikoa

- Arbelari Begira asteroko kronika Berria egunkarian (2. eta 3. edizioan)
- Euskal Kulturgintzaren Transmisioa irratsaioak (Hiru edizioetan)
- Ekultura.net bloga
- Euslandia: unibertso txiki baterako galderak
- Hau koaderno bat zen. Hau koaderno haren berrinterpretazioa da
- Patxi Huarte "Zaldiero"ren komiki-liburua
- Ipuin saioa: Hemengo kontuak
- Poesia organikoa
- Soka-dantza: komunitate baten kohesiorako tresna

Bestelakoak

- Mikel Laboa, kantuen bidez harilkatzen
- Mikel Laboa. Musikaria. Zubia
- Liburugintzaren paradigma berria
- Kultura iraunkorra izateko jarraibideak
- Kulturari buruzko oinarriak hizkuntza normalizazioko teknikarientzat
- Kultura eta hizkuntzaren transmisiorako politika publikoak: udal erabakiguneak
- Kultura-ondare inmaterialen bilketa
- Euskararen balio ekonomikoa aztergai
- Lan mundua euskararen etorkizunaren giltza

Proiektuok geuk biltzen ditugu Huhez in eta partaideok aukera izaten dugu, edizioz edizio, kontsultatzeko gero eta handiagoa den korpusa. Edozein modutan, dedikazio faltagatik ez gara iristen proiektuei behar adinako zabalkundea ematera; ez dugu modurik egin proiektuen transmisioa gelatik kanpora zabaltzeko. Egiteke eta egiteko daukagun lana da hori.

Edozein modutan, badira proiektu batzuk guk geuk bultzatu ditugunak EKTren irakaspenak beste formatu batzuetan ere emateko. Maialen Lujanbiok "Hau koaderno bat zen. Hau koaderno haren berrinterpretazioa da" osatu zuen 1. edizioan; Miriam Lukik "Euslandia: unibertso txiki baterako galderak" 2. edizioan. Bertsozale elkartearen baitako LAN-KUrekin lankidetzan argitaratuta daude jada bi sormen-lan horiek. 3. edizioan Patxi Huarte "Zaldiero" izan genuen ikasle eta bera arduratuko da komiki bitartez EKTk iradokitakoa transmititzeko. Ea laster ikusten duen argia, kolekzioa osatzen joateko.

Eta ez genuke bukatu nahi EKTn mimatu nahi izaten dugun beste arlo bati erreferentzia egin gabe. **Alderdi ludiko-sortzailea, hain justu.** Ikasturtearen joan-etorrian dena ez da "txapa" izaten, topatzen ditugu momentuak beste modu batean egoteko elkarrekin, beste modu batzuetan ikasten jarraitzeko.

Emaleek eskaintzen dizkigute zenbaitetan momentu horiek, kantuen eta errezitaldien bitartez, saioan bertan. Ez dauzkagu ahazteko, kasu, Amaia Zubiriaren eta Eñaut Etxamendiren kantuak, Porrotxen umorea eta ezta Joxanton Artzeren poema-errezitaldiak ere. Oparitu ere oparitu zigun bat 2. edizioan. Honakoa:

horren hurbil dugun lurra baino
hurbilago dugu askoz
horren urrun baino urrunago zaigun zerua...
bai, lurra oinpean dugu,
baina zerua bihotzean!

Joxanartze
Eskoriatzan 2009-VI-17

Beste zenbaitetan emaleek ikasleak klasetik atera eta martxan jartzen dituzte bestelako egitekoetan: GaraiON Naturarte elkartekoek lortu zuten bi ordutan Lip Dub horietako bat di-da batean egitea partaideok. Guk gidoia prestatu, beraiek ekarritakoekin mozorrotu eta grabazioa egiteko prest. Oier Araolazak berak ere soka-dantzan jarri gintuen beste

***Ikasleek titulua
eskuratu ahal
izateko proiektu
bat egin behar
izaten dute,
bakarrik edo
taldean. Ez
dauka zertan
Huheziko kide
bat izan tutorea,
ikasleak
aukeratzen du.***

**Proiektuok geuk
biltzen ditugu
Huhezin eta
partaideok
aukera izaten
dugu, edizioz
edizio,
kontsultatzeko
gero eta
handiagoa den
korpusa.**

**Detale txikiak
diruditen arren,
ondo dakigu guk
zein
garrantzitsuak
zaizkigun tarte
ludiko-sortzaile
horiek, emozioak
ere elikatu egin
behar baitira,
ondotxo
dakigunez.**

arratsalde batez. Harrituta Huheziko ikasleak, irakasleak eta langileak EKTkoak hala ikusita asteazken zurietan; eta gustora gu, kaosean.

Eskoriatzako saioetatik aparte, noizean behin irteerak ere egin izan ditugu larunbatetan. Halaxe joan ginen 2. edizioan Altzuzara, Oteizaren museoa bisitatzerakoan Jabi Morenoren gidaritzapean. Eta beste hainbeste 3. edizioan: Pedro eta Aitor Zuberogoitia anaien esanetara egin genuen “Bilbo eta euskara” ibilaldia alde zaharreko kaleetan zehar. Memoria ariketa bat.

Partaideon sortzeko gaitasuna bera ere astindu ahi izaten dugu, al-dian behin. Horren lekuko, esate baterako, Mikel Laboa zendu berriari egin genion omenalditxo 3. edizioan. Aurreko edizioetako hainbat ikasle bertaratu ziren, gainera, batzuk oholtzara eta beste batzuk ikusle. Eta kurtsu amaieran ere, diplomak banatzerakoan, beste jaialdi bat antolatu ohi dugu nork daukanetik emanda: musika, dantza, errezitaldiak... Eta jaialdiaren ondoren afaria, hori antolatzeko prest agertzen baitzaizkigu beti Juan Luis Arexolaleiba elkarte gastronomiko-kulturalaren atea zabaltzeko eta Edorta Agirre guretzat goxo-goxo sukaldatzeko. Detale txikiak diruditen arren, ondo dakigu guk zein garrantzitsuak zaizkigun tarte ludiko-sortzaile horiek, emozioak ere elikatu egin behar baitira, ondotxo dakigunez.

Batzorde pedagogiko kideok ere ez dugu atzean geratu nahi izan eta EKTren himnoa sortuta daukagu, ereserki ponpoxoa, urtero kantatu ohi duguna ikasleen aurrean. Horra:

HATSA

HARA	HITZA	HOTSA
Denean hatsa	Hasten denean	Bere bidean
Arnasa sortzen	Eranzten mintza	Berbaren lotsa
Berriz ere	Guztiari eta mintzaren atzean	Konprenitzen eta esanezinari
Hara eguratsa	Dagoena jazten	Sentimena jartzen
Aroan doa	Bertsotan hasten, letretan hazten	Barrura sartzen, lekua hartzen
Haizean datza	Hala goaz, hala gabiltza	Eta galtzen mendeen hotza
(bis)		

(Hitzak: Jon Sarasua. Musika: Iñaki Urruzola).

(<http://www.mondragon.edu/eu/ekt/guri-buruz/gure-doinua>)

EKTREN OIHARTZUNA HUHEZIN. ETA MUN?

I Edukiez eta partaidetzaz ari garela, Huhezira ere luzatu behar dugu begiratua. Ze oihartzun dauka EKTk etxekoen artean? Gorago aipatu ditugu euskal kulturgintzaren harira bideratzen diren ekimenak (haur eta gazte literatura-gidak, Huhezinema, literatura-asteak, etab.).

EKTn bertan, antolatze-lanetan, Sorguneak ikertegia osatzen dugun egungo kideez gain, ezin aipatu gabe utzi honako lagunok ere: Andoni Mujika, besteak beste EKT abian jarri ahal izateko hartutako ardurak burokratiko guztiengatik; Josune Zabala, lehen edizioaren koordinazio-lanetan aritutakoa; eta azken orduan, ixil-ixilik, Jexus Garmendia, hamar-kada hauetan Eskoriatzan eraikitakoaren aitapontekoa, jubilatuta ere EKTren batzorde pedagogikoan jarraitu izan duena hainbat urtetan. Bihoazkie hiruroi orain ari garen guztion esker ona!

Intendentziako laguntzaile hauez gain, ordea, jakintza sortzeari eta transmititzeari dagokionean, beste makina bat lankide hurreratzeko modua egin dugu. Edizio guztietan ekarri nahi izan ditugu etxeko ahotsak EKTra, gainerakoekin batera geuk eta geurez ere badugulakoan zer eskainia. Nor bere jakintza-eremuaren esparrutik, Huhezi bertako 15 irakasle aritu izan gara irakasle EKTko hiru ediziootan (H). Aurrera begira ere etorriko dira beste batzuk.

Irakasle lanetan aritzeko etorri dira batzuk eta beste makinatxo bat lankide 'komentzitu' ditugu, orobat, proiektu-tutore eta epai-mahaikide izateko. Huhezi barruko boluntariora-lanen zerrendan ageri dira EKTk bideratu ohi dituen horiek guztiak.

Hala, bada, etxe barruan ez gara, inondik inora, irla isolatua. Sintonian ari gara lankideon artean nagusi den euskal kulturgintzarekiko sentimendu eraikitzaile horretan.

Edozelan ere, gure fakultatea euskararen gune hegemonikoa dela esaten badugu ere, dena ez da larrosa kolorekoa Huhezinean bertan ere. Badaukagu makinatxo bat lan ikasle askok euskaldun izaten ikas dezaten, euskaraz elkarbizitzen ikas dezaten. Jakinaren gainean gaude Euskal Herriko gainerako fakultateetan, zeinahi delarik ere unibertsitatea, kontuak ez daudela gurean baino hobeto. Horrek, ordea, ez gaitu lasaitu behar gurean ezinbestekotzat jotzen dugun euskaldun izateko nahi hori lantzen jarrai dezagun.

Beste horrenbeste esan ote genezake, ordea, etxe nagusiaren barruan, geu ere baitako gaituen MÜren barruan, askotxotan nagusitzen den sentimenduaz? Zinez eta minez ezetz esan beharko dugu, zurikeriatan aritu nahi ez badugu. Zuzenean eta zeharka-meharka urteotan EKTn bidela-

Irakasle lanetan aritzeko etorri dira batzuk eta beste makinatxo bat lankide 'komentzitu' ditugu, orobat, proiektu-tutore eta epai-mahaikide izateko.

Badaukagu makinatxo bat lan ikasle askok euskaldun izaten ikas dezaten, euskaraz elkarbizitzen ikas dezaten.

**Jarraitu egin
behar dugu
norabide
horretan, euskal
kulturgintzaren
zabalkundea ez
baita berez
oztopo, aukera
baizik era
transbertsalean
heldu nahi
dionarentzat.**

gun izan ditugun hainbat kide etorri zaizkigu galdezka ea ze demontre ari garen MUTik Donostian “Basque Culinary Center” kanpoeder barre-nilun hori martxan jartzen? Gastronomía bera kulturgintzaren transmisioa ez al den, ez al daukagun guk zer esanik proiektu horretan. Ea “Basque” horrek EKTn esandakoekin eta Sorguneak ikertegiaren pre-misekin zer ikusirik ba ote daukan, alegia. Eta guk zer erantzungo, guk geuk jada ez dakigunik? Ba lokatzetan ibiltzen ohituta gaudela bestela ere, baina ez genuela uste etxe handiaren lokatza hainbestekoa izango zenik. Eginahalak eginda ere, ez dugu behar beste botererik metatu inork ondo ahoskatzen asmatzen ez duen Basque Culinary Center horrek izen nagusi hori izan ez dezan. Neorularismoaren beste adibide bat, ardura-dunak euskaldunak eta are euskaldun alfabetatuak izanda ere. Halakoen ustetan, gazte euskaldun eleaniztunei BCCn euskaraz ikasten jarraitzeko bidea zabaltzea “ez da posible, ezin liteke”. Basque horretan euskarari apenas ikusten dioten erabilgarritasunik, sinbolikoa asko jota, beti da geroko utzi daitekeen gai bat, “baina gu geu euskaldunak gara, e!”. Zinez eta minez ari naiz, bai!, etxe handikoez, BCC une honetan halakoa izatearen arduradunetz. Uste dut holakoek eragin egiten dutela MU oso-aren irudi korporatiboan, guri kalte egiten digutela. Huhezikide, MUKide eta kooperatiba askotako euskara-planetan ari garen euskaltzale asko-entzat belarrondokoa izaten ari da BCC, izaten ari denez. Xalbadorren “nigarra begian” hura datorkit gogora, odolaren mintzoa konpartitzen jarraitzeko antidotoa, momentuz besterik ezin denean:

Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian,
guretik deus ez duen hizkuntza mihian,
sofritzen egoiten naiz horien erdian,
gutaz ahalgetua, nigarra begian.
Nehoz etzeraukula, nik ez dut etsiko,
gure kontzientzia atzartzen hasiko;
egungo balentriak ez baitu betiko
odolaren mintzoa ixilaraziko.
O, entzule maitea, otoi barkamendu,
ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu!
jostetako gogoa dautate kendu,
aunitz maite duenak aunitz sofritzen du.

Pozak poz eta minak min, ordea, aurrera egiten jarraitu nahi dugu. Badaukagu gertuagoko eragin-eremuan zertan jarraitu lanean, baina ezin dugu ahaztu MUREn parte ere bagarela.

EKTn bildutako hainbat material txertatzen ari gara HUHEZIKo graduko ikasketetan, ohiko materietan eta ikastaro berezietan. Jarraitu egin behar dugu norabide horretan, euskal kulturgintzaren zabalkundea ez baita berez oztopo, aukera baizik era transbertsalean heldu nahi dionarentzat. Kanpoan ezin da erein etxetik bertatik hasi gabe, ahalegindu gabe.

AZKEN GOGOETAK

I

Antzeman daitekeenez, pozik gaude, orohar, EKTren bitartez azken urteotan egin dugun ibilbidea ikusita. Gogora datorkit Arrasateko esperientzia kooperatiboaren arimak, Jose Maria Arizmendiarrietak, zioen hura: "Harrotasun apur bat on zaigu; izan ere, ezertarako ez dela uste duen pertsonak ez baitio ezeri ekin ere egiten". Geu ere, halaxe: harrokeriatik ahalik eta urrunen beti, baina egin duguntxoaz pozik, egiten jarrai dezakegunari begira beti!

Pozak poz, ordea, badauzkagu makinatxo bat erronka aurrera begira EKT aditu-titulua harira. Zerrenda ditzagun lehentasunezkoztat jotzen ditugunak:

- Bi ikasturtean behin EKT antolatzen jarraitzea. Hori berori erronka da aldiro-aldiro birpentsatu egin beharko dugulako zein eratako jitea eman. Jakintza bildu ahala, zein bidetatik jarraituko dugu jakintza sortzen jarraitzeko? Zeintzuk dira erantzun beharreko galdera estrategikoak? Ze ekarpen egin ahal dugu guk gure dinamikaren bitartez? Bidenabar, hartzaileren profilari begira ere, instituzioetan lanean diharduten kultura-teknikariekin lan handiagoa egin behar dugulakoan gaude, orain artean ez baitzaizkigu hurbildu EKTra guk nahi beste.
- Erronka da, era berean, Huhezitik kanpora erabilgarri izango badira, ikasgelan jasotako grabazioen kalitatea hobetzea. Azpiegitura handia eskatzen du delako kalitate horrek eta orain artean ez dugu asmatu, nahi bestean. Baliabide teknikoak eta horiek maneiatzeko giza baliabide gehiago behar ditugu, beraz. Horiek martxan jartzeko, ordea, krisiak krisi, baliabide ekonomikoak ditugu ezinbesteko.
- Eta ikasleen matrikulaziotik atera ezin dugun dirua behar dugu, orobat, urteotan bildutako grabazioen eduki-hustuketak egiteko, aukeratutako pasarteak transkribatzeko, monografikoak osatu ahal izateko, etab. Hasita gaude berez erraldoia den lan horretan, baina baliabide faltak ez digu bidea errazten. Egiten hasita baina egiteko daukagu, beraz. Eta garrantzi handikoa iruditzen zaigu bilduta daukagunaren distilazioa egin eta formatu ezberdinetan gizarteratzea.

**Hartzaileren
profilari begira
ere,
instituzioetan
lanean
diharduten
kultura-
teknikariekin lan
handiagoa egin
behar
dugulakoan
gaude, orain
artean ez
baitzaizkigu
hurbildu EKTra
guk nahi beste.**

**Funtsean, sarea
ehuntzen
jarraitzea da
gakoa, handik
eta hemendik,
nork bere
saihetsetik
ahalik eta
norabiderik
bateratuenean
aritzea euskal
kulturgintzako
eragileok:
irakasleak,
ikasleak eta
laguntzaileak
taldean eta
benetan!**

- Egiteko dauzkagunak alde batera utzita ere, badaukagu lana, badaukagunez, orain arte argitaratutakoa jende gehiagorengana irits dadin. Alegia, Euskadi irratiko irratsaioak edota Berria-ko “arbelari begira” kronikak sarean daude egon, baina sarean egote hutsak ez du berez dinamikarik sorrarazten. Hezkuntza-sisteman edota euskaltegietan, esate baterako, zein nola landu ahal dira irratsaio, bideo eta kronika horietan jasotakoak?, zein eratako etekin didaktikoa atera ahal zaie? Sumatzen dugu badugula horretan zer hobetua, baina horretarako hezkuntzako eta euskaltegietako arduradunekin hitz egin behar da, materialok didaktifikatzeko moduetan asmatu... eta horrek berorrek ere dedikazioa eskatzen du.
- EKTko ikasleek urteotan egin dituzten proiektuak bilduta dauzkagu eta erabiltzen ditugu Huheziren baitan, baina horietako askok merezi dute ezagunagoak izatea, behar dituztenen eskura jartzea. Eta horretara jartzeko ere ez dugu astirik ateratzen, astia dirua baita halakoetan.
- EKTren weba behar bezain ondo elikatzea eta eguneratuta izatea bera ere erronka da. Kanpora begira ez ezik ikasleen partaidetza bideratzeko ere jarraitu egin behar dugu frogak egiten, egiteko berriak asmatzen.
- “Formaltasun akademiko-administratiboa” dela-eta, badugu horretan ere zer hobetua. Batez ere proiektuak aurkezteko epeei dagokienean, tituluak banatzeko uneei dagokienean. Ahalik eta ikaslerik gehienei bidea zabaldu eta erraztu nahi horrek berekin ekarri ohi du garaiz ibilitako ikasleek zain egon behar izatea, luzaroan, tramitazio administratiboak bukatu artean.
- Funtsean, sarea ehuntzen jarraitzea da gakoa, handik eta hemendik, nork bere saihetsetik ahalik eta norabiderik bateratuenean aritzea euskal kulturgintzako eragileok: irakasleak, ikasleak eta laguntzaileak taldean eta benetan!
- Hori guztia etxetik bertatik hasita, Huhezinean bereziki eta MUn ere bai.

Euskal Kulturgintzaren aditu-titulua eta Sorguneak ikertegia dira gaur egun gure lan-erramintak. Horien bitartez jarraitu nahi dugu jakintza biltzen, sortzen eta transmititzen. Orain arte egin dugun bideak animatu egiten gaitu adorez eta atseginez jarraitzen, bidelagunekin batera, hizkuntza komunitatearen biziberritzean, euskal kulturgintzan.

Geure behar pertsonala delako, erantzukizunez jokatzea dagokigulako eta, gainera darabilgun helburua oso-oso globala eta glokala delako: hizkuntza- eta kultura-ekologi(ko)a. Aurrera, bada, berriro ere! ●